

## Basoen galeran nekazaritzak baino eragin handiago du bestelako produktuen nazioarteko merkataritzak

Ukitu gabeko basoek biodibertsitate handiagoa dute, suteei eta hondamendi naturalei hobeto egiten diete aurre, eta eraldatutako basoek baino hiru aldiz karbono gehiago gorde dezakete hektareako. Hala ere, abiadura handian ari dira desagertzen, eta, askotan nekazaritzarako lur berriak sortzeari egozten zaio galera hori. *One Earth* aldizkarian argitaratutako lan batek, ordea, agerian jarri du nazioarteko merkataritzara bideratutako bestelako produktuek ere eragin handia dutela.



ARG.: Richard Whitcombe/Shutterstock

Ikusi dute, esaterako, baso-galeren heren bat lotuta dagoela Errusiatik, Kanadatik eta eremu tropikaletatik Txinara, Europara eta AEBra egindako esportazioekin. Eta esportazioarekin lotutako baso-galeren % 51 zurekin eta meatzaritzarekin lotuta dago, eta % 26 energia-erazketarekin. ●

## Aldizkari zientifikoaren editore gehienak gizonezkoak dira

Aldizkari zientifikoetako editoreen % 14 baino ez dira emakumezkoak. Bestetik, editoreen % 12k beren lanak argitaratzen dituzte beren aldizkarian. Ondorio horiek atera dituzte *Nature Human Behaviour* aldizkarian argitara duten azterketa batean.

Guztira, 50 urtean 15 diziplinako 1.000 aldizkarian baino gehiagotan aritu diren 80.000 editoreen datuak aztertu dituzte. Eta ikusi dute ezen, urteetan aurrera egin ahala emakumezkoen kopurua handituz joan den arren, editore guztien % 14 eta editore nagusien % 8 direla emakumeak.

Editore gehienak (aldizkari handienetakoak salbu) zientzialari aktiboak izan ohi dira, eta, haien argitaratze-historia aztertuta, ohartu dira gizonek gehiago argitaratzen dutela berek editatutako aldizkarian, emakumeekin alderatuta. ●



ARG.: ESO